

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Gazteei enpresetan praktikak egiteko dirulaguntzak emateko deialdia: deialdia arautzen duten oinarri orokorrak

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2016ko azaroaren 4ko bileran, ebatzi zuen dirulaguntzetarako deialdi hau arautuko duten oinarriak onartzea: gazteei enpresetan praktikak egiteko dirulaguntzak emateko deialdia.

Lehenengoa. Xedea eta iraupena

1. Pertsona gazte tituludunek enpresetan praktikak egiteko aukera izan dezaten eta hartara prestakuntza hartzen aritu diren bitartean jaso dituzten ezagutzak beren kualifikazio profesionalari dagozkion eginkizunetan garatzeko aukera izan dezaten, prestakuntzarako diru-laguntzak emateko deialdia egin da; bada, honen bidez, deialdi hori arautuko duten oinarriak ezartzen dira, dirulaguntzak norgehiagoka bidez eta publikitate, objektibotasun, gardentasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioen pean emateko. Eskainiko diren beken kopuruaren erdia unibertsitate titulua duten gazteentzat izango da, eta, beste erdia, lanbide hezkuntzako titulazioa duten gazteentzat.

2. Bekek sei hilabete iraungo dute gehienez, egunean 6 orduko jardunak eginez.

3. Deialdiak gauzatuko dira bekadunak hartzen dituzten enpresekiko edo enpresa horiek batzen dituen enpresa elkartearekiko elkarlanean, haiekin hitzarmen arautzaile bat eginik.

4. Beka bakoitza 1493/2011 Errege Dekretuan ezarritako kotizazio araubidearen pean izango da (1493/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, prestakuntza programetan parte hartzen duten pertsonak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartzeko moduak eta baldintzak arautzen dituena; beste lege honen hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa garatuz eman zen errege dekretu hori: 27/2011 Legea, Gizarte Segurantzako sistema eguneratu, egokitu eta berritzeari buruzkoa).

5. Praktiketako bekaduna hartzen duen enpresak edo enpresa horiek batzen dituen enpresa elkarteak ordainduko du Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorreko enpresa kuota, eta, halaber, berak ordainduko ditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura ordaindu beharreko atxikipenak.

Bigarrena. Baldintza orokorrak

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak jasotzeko, 18 eta 30 urte bitartean eduki behar dituzte gazteek (deialdiaren urtean beteak), eta, horrez gain, honako baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Espainiako nazionalitatea eduki behar dute, edo Europar Batasuneko beste estatu kide batekoa.

b) Araban edo Trebiñuko Konderrian erroldaturik egon behar dute.

c) Beka bakoitzerako behar den titulazioa eduki behar dute, deialdian zehaztutakoaren arabera. Espainiatik kanpo lortutako tituluak ofizialki homologatuta egon beharko dira.

d) Ezingo dute norgehiagokan parte hartu antzeko deialdietan Arabako Foru Aldundiaren beste beka batzuk lortu izan dituztenak.

Hirugarrena. Eskaerak aurkeztea

1. Eskaerak eta ondoren aipatzen diren agiriak hogei egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, Gazteriaren Foru Erakundeak emango duen arauzko eredia behar bezala betez (Gazteriaren Foru Erakundearen orrialde honetan ere eskura daiteke: www.araba.eus/gazteria, baita ere helbide honetan: Landazuri kalea, 3 zk. behea, Gasteiz).

Inprimaki horrekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Eskatzailearen NANaren fotokopia konpultsatua.
2. Araban edo Trebiñuko Konderrian eroldaturik dagoelako ziurtagiria.
3. Titulu akademikoen fotokopia konpultsatua.
4. Ikasketa espedientearen ziurtagiria, lortu den batez besteko nota jasotzen duena, originala edo GFEk konpultsatutako fotokopia.
5. Dakizkien hizkuntzen ziurtagiri ofizialen fotokopia konpultsatua.
6. Zinpeko aitorpena, adieraziz ezen beste erakunde publiko edo pribatu batzuek ez diotela eman diruz laguntzekoa den jarduera horretarako bererako laguntzarik. (Eredua GFEren web orrian)
7. Deialdian eskatzen den beste edozein agiri.

2. Behin eskaria beterik eta harekin batera aginduzkoak diren agiri guztiak aurkezturik, Gazteriaren Foru Erakundeari aurkeztu beharko zaizkio, hargatik eragotzi gabe 39/2015 Legearen 16 artikuluan ezarritakoa, urriaren 1ekoa, Prozedura Erkideari buruzkoa.

Eskabidean berariaz adierazi beharko da jakinarazpenetarako helbidea, eta, behin eskabidea aurkeztuz gero, adituko da oinarri hauetan ezarritakoa berariaz eta formalki onartu dela.

3. 39/2015 Legearen 68. artikuluan, urriaren 1ekoa, xedatutakoari jarraituz, baldin eta eskabideak ez baditu betetzen deialdian onartua izateko ezarritako baldintzak, Gazteriaren Foru Erakundeak interesatuari eskatuko dio konpon ditzala hutsegiteak edo bidal ditzala eskatutako agiriak hamar egun balioduneko epean. Ez badira hutsegiteak epe horretan konpontzen, adituko da eskaeran atzera egin duela, eta 39/2015 Legearen 21.1 artikulua, urriaren 1ekoa ezarritako moduan ebazpena eman ondoren, eskaera artxibatu egingo da.

Laugarrena. Eskabideak instruitzeko eta baloratzeko organoak

1. Eskabideak aztertu eta baloratzeko prozesuetarako, Hautaketa, Jarraipen eta Interpretazio Batzorde Iraunkor bat eratuko da.

2. Hautaketa, Jarraipen eta Interpretazio Batzorde hori kide hauek eratuko dute:

- a) Idazkaritza Teknikoko burua edo hark eskuordetutako pertsona.
- b) Zerbitzu Orokorretako teknikaria edo hark eskuordetutako pertsona.
- c) Gazteriako teknikaria edo hark eskuordetutako pertsona.

3. Hautaketa, Jarraipen eta Interpretazio Batzorde Iraunkorraren bileretan, batzordeko kide ez diren pertsona adituek parte hartu ahal izango dute, baldin eta kualifikazio egokia badute, eskariak baloratzeko orduan aholku emanaz. Pertsona horien izendapena Batzorde horrek proposatu eta berariaz onartuko du.

4. Batzorde horretako kideen artean pertsona bat izango da emakume eta gizonen arteko berdintasun aukeren gaiari buruzko ezagupenak dituen eta ezagupen horien aplikazio praktikoa esperientzia duena.

Bosgarrena. Dirulaguntzak ematea

1. Dirulaguntzak emateko ohiko prozedura norgehiagoka izango da, dagokion deialdian adierazitako salbuespenak izan ezik.

2. Eskabideak deialdian ezarritako irizpideen arabera baloratuko dira. Merezimenduak baloratzeko, eskabidearekin batera aurkeztutako agiriak hartuko dira kontuan, eta haiei buruzko frogatzat dokumentua aurkeztu bada hartuko dira kontuan, ez bestela. Beharrezkoa izanez gero, Hautaketa, Jarraipen eta Interpretazio Batzorde Iraunkorrak aukeran izango du eskatzaileengana jotzea dokumentazio argigarri gehigarria eskatzeko alegatutako merezimenduak frogatzeko aurkeztutako dokumentazioari buruz, eta ez da onartuko inolaz ere merezimenduak frogatzeko dokumentazio berria, eskabideak aurkezteko epean aurkeztu gabea.

3. Lortutako gehienezko puntuaziotik hasita eta eskatzailearen titulazioaren arabera esleituko dira beka.

4. Gazteriaren Foru Erakundearen web orrian esleitutako beken zerrenda osoa argitaratuko da, bai eta ordezkoea ere. Hautatutako pertsona bakoitzari jakinarazpena igorriko zaio.

Seigarrena. Beste beka batzuk ere eskuratzea eta beken bateraezintasuna

1. Deialdi honetako beka bateraezina da funts publiko edo pribatu espainiar nahiz Europar Batasuneko batek emandako beste edozein bekaekin.

2. Era berean, bekadunak, praktika-aldian, ezingo du jaso inolako ordain ekonomikorik, diruzko edo gauzazko ordainsaririk ez lanbide saririk praktiketarako hartuko duen enpresarekin lotura zuzena edo zeharkakoa duen lan edo lanbide jarduera bat gauzatzeagatik.

3. Era berean, bateraezina izango da langabezia sariekin.

4. Bekaren onuradunek zilegi izango dute prestakuntza hobetzeko bateragarriak diren ikasketak egitea prestakuntza beka daukaten artean.

Zazpigarrena. Dirulaguntzak ordaintzea

Gazteak praktiketarako hartuko dituzten enpresen bitartez edo enpresa horiek batzen dituzten enpresa elkartearen bitartez ordainduko dira dirulaguntzak, bat etorriaz Gazteriaren Foru Erakundearen ebazpenarekin; hitzarmen bat ere sinatuko da haiekin, praktikak nola gauzatu behar diren arautzeko.

Bekadunei esleitutako dirulaguntzaren zenbateko gordina hilero-hilero ordainketa egiteko baliatuko du gaztea praktiketan hartu duen enpresak edo enpresa horiek batzen dituen enpresa elkarteak, eta, zenbateko horretatik, Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuotaren zenbatekoa kendu beharko da, praktiketako pertsonari dagokiona, 1493/2011 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera (1493/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, prestakuntza programetan parte hartzen duten pertsonak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartzeko moduak eta baldintzak arautzen dituena, beste lege honen hirugarren xedapen gehigarria ezarritakoa garatuz: 27/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa, Gizarte Segurantzaren sistema eguneratu, egokitu eta modernizatzeari buruzkoa).

Era berean, hilero-hileroko ordainketa hori pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren atxikipenen pean egongo da.

Ordainketa, eskuarki, hilabeteko epemuga betetzean egingo da.

Ordaindutako zenbatekoak ez dira joko, inolaz ere, soldatatzat edo ordainsaritzat, baizik eta beka berekin dakartzan gastuak ordaintzeko dirulaguntzat.

Zortzigarrena. Datuen babesa

Eskabideen bidez eskuratzen diren datu pertsonalak 15/1999 Lege Organikoaren peko fitxategi automatizatuan sartuko dira tratamendurako (15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak

Babesteari buruzkoa). Fitxategi hori Gazteriaren Foru Erakundearen dirulaguntzak kudeatzeko baizik ezingo dira erabili.

Bederatzigarrena. Berdintasun Legea betetzea

Praktika-aldian zehar, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legean (4/2005 Legea, otsailaren 18koa) eta Emakumeen eta Gizonen Egiako berdintasunerako Lege Organikoan (3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa) ezarritakoa bete beharko da. Ezingo dira izendatu gazteak praktiketarako hartzeko enpresatzat sexu dela-eta diskriminazio eragiteagatik epai irmoaren bidez kondenatuak izan diren entitateak.

Hamargarrena. Ez betetzea

1. Baldin eskatzaileek ez badute betetzen laguntza deialdietan eta oinarri orokor hauetan araututako baldintzaren bat, aukeran izango da dirulaguntza ezeztatzea, eta dirulaguntza dagoeneko ordainduta badago, eskatzaileak nahitaez itzuli beharko du dirulaguntza hori, indarrean dagoen legearekin bat etorriz, Gazteriaren Foru Erakundeak zehaztuko duen eran.

2. Gazteriaren Foru Erakundeak dagozkion legezko akzioak baliatu ahalko ditu oinarri hauetan ezarritako dirulaguntzei buruzko administrazio ebazpenetan ezarritakoaren ez betetze larria gertatzen bada, baita ere ziurtagirietan eta bete beharreko aitortpenetan faltsutzea egiten bada.

Hamaikagarrena. Errekurtsoak

Deialdi honen kontra, dirulaguntzak esleitu edo ukatzearen kontra eta deialdiaren ondoriozko gainerako administrazio egintzen kontra, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da hilabete epean (39/2015 Legearen 123. eta 124. Artikuluak, urriaren 1ekoa), edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa, argitaratu eta hurrengo bi hilabeteetan zehar, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, 29/98 Legean ezarritakoari jarraituz (29/98 legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duena).

Hamabigarrena. Aurrekontu baliabideak izendatzea

1. Deialdian, eskaintzen diren dirulaguntzetarako gehieneko zenbatekoa zein den zehaztuko da, bai eta zenbateko hori aurrekontuko zein partiden kontura den.

2. Aurrekontu ekitaldian emandako laguntzak, guztira, ez dira izango izendapen hori baino gehiago, edo deialdia ebatzi aurretik aurrekontuan aldatetak eginik eragiten diren eguneratzeen ondoriozko izendapena baino gehiago. Edonola ere, kasuan kasuko deialdietan, muga ezarri ahal izango zaio guztirako kostu horri, eta erabaki ahalko da haren zati bati bakarrik dagokiola finantzaketa publikoa, eta, hala komeni dela irizten bazaio, dirulaguntzaren zenbatekoaren gehieneko bat ezarri ahalko da eskatzaile eta/edo diruz lagundu beharreko jarduera bakoitzeko.

Hamahirugarrena. Publizitatea eta indarrean sartzea

Oinarri hauek ALHAOn argitaratuko dira, eta argitaratu ondoko egunean sartuko dira indarrean.

Hamalagarrena. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sortzen diren zalantzak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendaritza-kudeatzaileak ebatziko ditu.

Hamabosgarrena. Araubide juridikoa

Oinarri hauetan xedatuta ez dagoen guztian, ondoko xedapen hauei jarraituko zaie: 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntza; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Lege Orokorrari buruzkoa; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, zeinaren bidez onartzen baita Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua (38/2003 Legea, azaroaren 17koa); abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren Ekonomia

eta Aurrekontu Araubidearena, indarrean den Aurrekontu Ordenamendua; 40/2015 Legea, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearena eta aplikatzekoak zaizkion gainerakoak.

Gasteiz, 2016ko azaroaren 4a

Gazteriaren Foru Erakundearen Kudeaketako zuzendaritza
JOSEBA KOLDO PEREZ DE HEREDIA ARBIGANO